

## Mondragon Unibertsitateak eta Telefónicak indarrak batu dituzte produktu-diseinuarekin eta erabiltzaile-esperientziarekin lotutako ikerkuntzan

2014/10/10

Aurreikusitako lehen ekimena lan-jardunaldia (Workshop) atzo Arrasaten eman zen. Ehun lagun inguru bildu ziren, eta bertan izan ziren Telefónica I+Dko, READ diseinu-elkarteen Espainiako sareko eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak.

Ekimen hau, enprekin kolaborazio harremanak izateko estrategiaren barruan kokatzen da, enpresa ikaslengana hurbiltzeko xedearekin. Ekitaldian, Industria diseinuko eta produktu garapeneko ingeniari-tza graduko zein Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterreko ikasleak hartu zuten parte.

Ekitaldian, alde batetik, ikasleek enprekin batera garatutako hainbat proiektu aurkeztu zituzten. Bestalde, Telefónica I+D-k enpresak diseinu eta erabiltzailearen esperientziaren arloan dauzkan beharrak aurkeztu zituen adibide errealen bitartez. Gainera, hainbat euskal diseinatzailek hartu zuten parte euren diseinuari buruzko eta honen etorkizunari buruzko ikuspuntuak partekatuz.



